

## **Ikasketa gehienek irailean hasiko dute 2008-2009 ikasturtea**

2008/09/08

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, HUHEZIn, dena dago prest 2008-2009 ikasturterako. Uda partean lan ugari egin dira fakultatean, batez ere ikasle gehiago hartu ahal izateko: ikasgelak, areto nagusia, ordenagailu gelak..., baina lan gehienak bukatuta egongo dira hasi orduko.

### **Ikasturte hasiera 1. mailan**

Etorri berriek beti hasten dute ikasturtea aparte beste mailletako ikasleengandik, eta aurten ere horrela izango da. Hona hemen hasteko datak 1. mailako ikasleentzat, espezialitateen arabera.

- **Psikopedagogia:** irailaren 22an.
- **2. Diploma:** irailaren 23an.
- **Ikus-entzunezko Komunikazioa:** irailaren 25ean.
- **Irakasle ikasketak:** irailaren 26an.

### **Ikasturte hasiera gainerako mailetan**

Bigarren, hirugarren edo laugarren mailakoek, aldiz, beste data batzuk izango dituzte:

- **Psikopedagogia:** irailaren 29an.
- **2. Diploma:** irailaren 8an.
- **Ikus-entzunezko Komunikazioa:** irailaren 18an.
- **Irakasle ikasketak:** irailaren 22an.

**Erasmus** egitasmoarekin Europatik iritsi diren ikasleak, berriz, irailaren 15ean hasiko dira, eurentzat harrera programa berezi bat antolatu baita.

